

Fondoaren inbertsio-politikaren printzipioen aitortpena

Caja Laboral Variable Pentsio Plana

1.> Pentsio-planaren identifikazio-datuak

>> Pentsio Planaren datuak

a. Izena	Caja Laboral Variable Pentsio Plana
b. Sistema	Sistema indibidualeko pentsio-plana
c. Identifikazio-zenbakia ¹	N1791

>> Pentsio Fondoaren datuak

a. Izena	Caja Laboral Variable, Pentsio Fondoa
b. Sistema	Pentsio-fondo pertsonala
c. Identifikazio-zenbakia ¹	F0654

>> Pentsio-fondoaren erakunde gordailuzainaren datuak

a. Izena	Caja Laboral Popular Coop. de Crédito
b. Helbide soziala	Jose Maria Arizmendiarieta Pasealekua, zk.g. 20500 - Arrasate (Gipuzkoa)
c. Identifikazio-zenbakia ¹	D0194

>> Pentsio Fondoaren erakunde gestorearen eta Planaren erakunde gestorearen datuak:

a. Izena	Caja Laboral Pensiones S.A., G.F.P.
b. Helbide soziala	Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk.g. 20500 - Arrasate (Gipuzkoa)
c. Identifikazio-zenbakia ¹	G0217

2.> Inbertsio-politikaren printzipioen aitortpena

>> Inbertsio-irizpidea	Fondoaren aktiboak partaideen eta onuradunen mesedetan inbertituko da, batez ere araututako merkatuetan, betiere segurtasuna, errentagarritasuna, likidezia, dibertsifikazioa, dispertsioa, moneta-kongruentzia eta helburuetara moldatutako epeak aintzat hartuta.
>> Balorazio-irizpidea	Fondoko aktiboak merkatuko prezioaren edo burutzapen-balioaren arabera baloratuko dira, indarreko legediak finkatzen dituen gidalerroei jarraiki.
>> Banaketa estrategikoa	Gutxienez ondarearen % 50 inbertitzen du errenta aldakorrean, baina merkatu antolatuetako aktibo deribatuak erabil ditzake portzentaje hori aldatzeko. Gainerako zorroa errenta finkoko tituluetan inbertituko da.
>> Arrisku-profila	Pentsio-plan hau inbertsio-profil dinamikoetarako eta/edo estalitako kontingentziaren bat gertatzeko aurreikusitako epea 10 urtetik gorakoa dutenez da gomendagarria.
>> Arriskuak neurtzea	Merkatu-arriskua: Fondoaren urteko hegakortasuna, errenta aldakorrean inbertitutako portzentajea eta errenta finkoko zorroaren iraupena. Kreditu-arriskua: Zorroko tituluen ratinga. Likidezia-arriskua: Likideziaren portzentajea zorroan. Errenta finkoa: Fondoaren iraupena. 0 eta 5 urte bitartekoa izango da.
>> Arriskuen kontrolaren gestioa	Errenta finkoa: Errenta finkoaren % 25 gutxienez zor publikoan (Altxorrek eta erakunde publikoak). Errenta aldakorra: Bokazioa globala da, batez ere ELGEko herrialdeena
>> Erreferentzia-indizeak	Errenta finkoa: Bloomberg Barclays Pan-european Aggregate 3-5yr TR. Errenta aldakorra: MSCI World.
>> Likidezia-koefizientea	Fondoak prestazioei aurre egiteko moduko likidezia-koefizientea izango du. Koefiziente hori ageriko gordailuetan eta gehienez hiru hileko mugaeguna duten diru-merkatuko aktiboetan egongo da.
>> Gainbegiratzea eta jarraipena egitea	Erakunde gestorearen middle office areak harturiko arrisku-maila kalkulatzeko eta inbertsio-politikan finkaturikoarekin bat datorren egiaztatze prozedurak ditu.
>> Indarraldia	Nahi adina

¹ Aseguruen eta Pentsio Fondoan Zuzendaritza Orokorren erregistro bereziko identifikazio-zenbakia